

ARANGOITIKO ESKOLA ZAARRA

Ezaguna dan lez, laster eratsiko dabe Arangoitiko eskola zaarra, edo aretarik lotu dan zatia, obeto esateko. Aren lekuan etxebizitza sozialak egiteko asmoa ei dau Bilboko udalak. Arangoitin eskola barria eregi zane-tik, leengo zeregina beteteari itzi eutson eskola zaarrak, berau utsik lotuta. Denporagarrentxuan baina, auzoko talde kultural batzuen babes-leku biurtu zan, gaur arte. Danetari-koak eta askotarikoak.

Orreetarikoa da geurea. Euskal dantzak ikasi eta entsaietako bariku arratsaldeetan alkartuten gara ara. Inork pentsau lei umemokoen kontua dala. Oker dabil, bada, goitik beera.

Ze izan, danok gara elduak, gazteena berrogei urtekoa izanda, zaarrena, bada, ..., zertarako aitatu? Ez deutso lebarik. Deustuko zein Deusturik kanpoko lagunartea gara. Baten batzuk asagorik etorten dira, Arrasaterik, Laudiorik, esaterako, beste batzuk, deustuarrak dira, barriz. Arangoitiko eskola zaarra dogu alkarleku, bertakoa ekandu bizi.

Alan bada, ara alkartuten diran taldeak urteotan euren ekintzen eta saioen aterpe izan dana galduko dabelakoan dagoz. Ori dala eta, batzarrak eratu dabez arazoa aztertu eta urtenbideren bat edo batzuk udalari maaiganeratuteko. Borondate

utsez eta errespetu osoz bertan ain-beste lagunek makinatxu bat aalegin, batekoak zein bestekoak, egin ostean, alan beste bagarik, kale gorrian iztea ez litzake bidezko ezta itxurazko be. Orregaitik, bada, aldiz-kari beronen lerrootarik Bilboko uda-lean jagokonari eskatu gura geunskio Arangoitiko eskola zaarrea batuten diran taldeak, dan-danak, onean babestuteko eta ordezkio eskaintza duina egiteko. Gure eskabideak alde-ko erantzuna eukiko aal dau!

**Iniaki Martiartu
Bakio**

JAKITURIA

Giza jakituria,
guztiz, lora bikain da
giza semeetan,
jakituri argiak
sortzen ditu gauz onak
gizonen bidetan.

Jakituria doa
egazka itxasoan
izontzi barrian,
burua ta biotza,
biak, batera, doaz
alkartasunian.

Giza jakituriak
arrañez betetuten dau
izontzi zuria,
itxastar langilleak
atsegiñez doazi
ospatuten jaiak.

Arin-aringa dago
itxaso urdiñean
astelen goizean,
jaiak ospatuteko
egun egokiena
uraren gaiñean

Itxas gizon argiak,
gogoz, gertatu dira
itxaso aurrian,
urak, oparo, dagoz,
urdin dizdiz artian,
itxas zabalian.

Jakituria dago
itxasoaren aurrez
mendi magalean,
zugatzak edertuten,
gero ta bikaiñago,
aritzen artean.

PAULIN

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU